

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideetan, beharko ditugun baliabide ezberdinak azalduko ditugu, baliabide fisikoak, intelektualak eta finantzarioak.

Baliabide fisikoetan atal ezberdinak ditugu.


Baliabide funtsezkoena mugikorrek dira, guk ondoren eraldatu ahal izateko. Mugikorrek salduko ditugun produktuak direnez, modurik hoberenean eginda egotea nahi dugu, xehetasun guztiekin eta horrela bezeroek ahalik eta produkturik onena izango dute.

Elkarlanean arituko gara enprekin, horregatik kontaktuan egoteko oso garrantzitsua da baliabide teknologikoak izatea, mugikorra eta ordenagailua. Mugikorra, telefono deiak erantzun ahal izateko eta dagokion departamenduan bezeroekin kontaktuan egoteko erabiliko dugu, aldiz, beste langileentzat garrantzitsua izango da mugikor bat izatea beste elkarte batzuekin harremanetan jartzeko. Ordenagailua ere baliabide garrantzitsua da mezuak erantzun ahal izateko denak ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko.



Lokal bat ere beharko dugu leku finko batean lanean jarduteko, online eskatzen ditugun gauzak leku fisiko batera iristeko eta enpresa batekin bilera bat izan behar baldin badugu nonbait egin ahal izateko. Lana egiterako momentuan oso ideia ona iruditzen zaigu leku finko bat izatea horretarako, lana produktiboagoa izateko.

Auto bat izatea garrantzitsua da, bileratara modu efektibo eta azkar batean joateko eta zerbitzu publikoetan denbora ez galtzeko. Beste bat beharko dugu, gure produktua Media Markteko almagazinetara eraman ahal izateko.



Bestalde, gutako bakoitzak enpresara egokitutako abileziak ditu.

Adibidez, Julenek diru kontuak eramaten oso ona da. Horrez gain, aliantza asko egin ditugunez, garrantzitsua da



besteekin komunikatzeko erraztasuna duen pertsona bat edukitzea, Garazik abilezia hori du. Bukatzeko, Lukak eta Itsasok teknologiako munduan oinarritutako ikasketak egin dituzte.